



ETXALARKO UDALA

Anduzeta, 16 – 2. solairua - 31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tel.: 948-635005 - Fax: 948-635232

e-posta: udala@etxalar.eus - Web: www.etxalar.eus

ETXALARKO USO POSTUEN APROBETXAMENDURAKO ENKANTEA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA – 2021

1.- Enkante honen xedea da NA-10.384 ehiza barrutian dagoen Etxalarko Udal honetako uso postuen aprobetxamendua. 21 uso postu daude larmendi alderdian kokatuak.

2.- Esleitutako aprobetxamenduaren iraupena hauxe izanen da: behin betiko esleipenaren egunean hasiko da eta 2021eko abenduaren 12an bukatuko da (egun horretatik aurrera postuak desmuntatu ahalko dira).

3.- Lizitazioaren hasierako prezioak honako hauek dira:

POSTUA	PREZIOA
1. postua	950,00
2. postua	950,00
3. postua	2.285,00
4. postua	1.780,00
5. postua	2.285,00
6. postua	1.780,00
7. postua	2.285,00
8. postua	3.380,00
9. postua	2.305,00
10. postua	2.305,00
11. postua	3.380,00

POSTUA	PREZIOA
12. postua	1.710,00
13. postua	1.505,00
14. postua	950,00
15. postua	950,00
16. postua	740,00
17. postua	740,00
18. postua	740,00
19. postua	950,00
20. postua	1.710,00
21. postua	1.710,00

4.- **Enkantea** ahozko posturaren bidez egingen da, Etxalarko Kultur Etxean, **2021eko IRAILAREN 4AN (LARUNBATA), GOIZEKO 12:00etan**, eta sesta emateko aukera izanen da.

COVID-19REN OSASUN-KRISIA DELA ETA, BERTARATZEN DIREN PERTSONEK GEL DESINFEKTATZAILEA ERABILI BEHARKO DUTE ETA MASKARA ERAMAN BEHARKO DUTE, NAHITAEZ.

5.- Enkantean parte hartzeko, enkantean egon beharko da, eta eskaintza egin duen pertsonari esleituko zaio esleipena. Pertsona juridiko baten izenean eta hura ordezkatzuz egiten bada eskaintza, eskaintza egiteko unean agerrarazi beharko da.

Postua esleitzen zaion pertsonak bere nortasuna egiaztatu beharko du fidantza ordaintzeko unean IFZ aurkeztuta. Halaber, Etxalarko Udalarekin izandako edozein kontratugorabeheraren erantzule izango da.

6.- Enkantean ematen den tanto bakoitza 10 eurokoa izanen da.

7.- Behin-behineko esleipena egin ondoren, hartzaileak hasierako prezioaren %30 ordainduko du, fidantza gisa.

8.- Errentarako ateratzen den zenbatekoa honela ordainduko da:

- Lekua: Herriko Diruzaintzan - Epea: 2021eko irailaren 24rako.

9.- Esleipen-hartzaileak ordaindu behar dituen zerga eta gaineko gastuak hauek dira:

- Gastuentzat: esleipenaren %2,5. - BEZ: legearen arabera ezarri behar dena.

10.- Uso-ehizako postuen aprobetxamendua esleitzeko lehenengo bi enkanteak egin ondoren posturen bat esleitu gabe geratzen bada, Udalak egoera aztertuko du eta egoki iritzitako ebazpena emango du.

11.- Ordaintzeko epea iritsita, postua hartu duenak ordaindu ez balu, udalak, hala izanik, fidantza bereganatuko du eta postu hori zozketan sartuko du. Kasu horretan, zozketa honen barruan sartuko lirateke larmendi lerroko postu guztiak.

12.- Argitu aurretik ez da tirorik botako.

13.- Korneta behin jotzeak erran nahi du ehiztariak ez dutela tiro egin behar, eta bi aldiz segituan jotzen baldin bada, tiro egiten ahal da. Korneta ezarriko da soilik 1-15 uso postuetan (biak barne).

14.- Postu bakoitzeko 3 txartel emanen dira. Txartel horiek egiaztatzen dute postu horretan bakarrik ehizatzeko baimena dutela, eta txartel horiek ez dira erabiliko esleitutakoa ez den bertze postu batean ehizatzeko.

15.- Postuaren bizkarraldeak postu horrekiko paraleloan egon beharko du (postuko piketetik izkinetara 1,20 metro gehienez).

16.- Ehiztariak postuak egunero garbi utziko dituzte saioa bukatutzat eman ondoren, hau da, postuetatik lekutu aurretik.

17.- SESTA EMATEKO PROZEDURA honela gauzatuko da:

- o Enkantean aterako dira, hala bada, irailaren 4ko enkantean hartu gabe gelditutako postuak eta sesta emateko epean ukituak izan direnak.
- o Enkantearen prozedura: 3 aukera emanen dira eskaintzak hobetzeko, eta tanto bakoitza 10 eurokoa izanen da.
- o Sestaren enkanteko egunean egiten diren esleipenak behin betikoak izanen dira.
- o Esleipendunek ordaindu beharreko gastuak hauexek dira:
 - * BEZ: : legearen arabera ezarri behar dena
 - * Gastuak: % 2,5
- o Fidantza: enkanteren ondotik hasierako prezioaren %30 kobratuko da, fidantza gisa.
- o Ordainketak 2021eko irailaren 24rako egingen dira.

18.- Covid-19 delakoagatik osasun-egoera larriagotuko balitz eta horrek ehizan eragina izango balu, udalak neurri egokiak hartuko ditu ehiza-postuen esleipendunei eragin dakizkiekeen kalteak konpentsatzeko.

Legezko arrazoia dela eta, esleitutako postua erabili ezin bada eta uko egin nahi bazaio, uko egite hori idatziz aurkeztuko zaio Udalari, eta uko egindako postuari dagozkion txartelak itzuliko dira.

Kasu horretan, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio postuaren esleipendunari, baliatutako aprobetxamendu-egunen eta esleipen-epaia amaitu arte geratuko liritekeen egunen arabera (hau da, 2021eko abenduaren 12ra arte).

Esleipenari uko eginez gero, Udalak bando bidez iragarriko du egoera hori, eta uko egindako eta libre geratu diren postuei buruzko eskaintzak aurkezteko epea emango du.

Udalbatzak baldintza-plegu hau onartu du 2021eko abuztuaren 6an eginiko bileran.

ALKATEA,
Miguel M^a Irigoien Sanzberro



